

1968ko maiatza Parisen

Harrien azpian politika

Esperantzaren udaberria izan zen, desilusioaren negua. Dena zegoen aurretik, guztia atzean geratua zen. Hasiera izan zen eta amaiera aldi berean. U urtea izan zen, H hilabetea. 1968ko maiatza Parisen. Tapoiak hegan egin zuen eta botilak askatasuna isuri. Gero trago garratzagoak etorriko ziren eta galdera bat: mozkorraldi hartatik zerbait geratu al zaigu?

GORKA BEREZIARTUA



1968ko maiatza Parisen

TELEBISTAK Jimmy Hendrixen gitarra gogoratzen du, hippyak, Vietnam, sexua, drogak eta ikasle zoro batzuk poliziari harri tiraka. Irudi batzuk, estetika eta ganbara bete nostalgia; kontrolatua, hori bai. Pragako tankeen urtea izan zen, Mexikoko Tlatelolco-ko ikasleen hilketarena. Tommie Smithen eta John Carlosek Joko Olimpikoetako podiumean ukabila altxa zuten AEBetako beltzen eskubideen alde, Martin Luther King hil zuten, ultraeskuindar batek Rudi Dutschke-ri hiru bala sartu zizkion buruan Alemania demokratikoan. 1968 ugari izan ziren, baina bakarrak du mitoaren oihartzuna mende honetako lehen hamarkadan. Berrogei urteren buruan Parisko maiatza oraindik joan-etorri handiko kontua da beren burua ezkerreko eta aurrera-koitzat dutenentzat. Eskuinarentzat –Frantziakoarentzat batez ere–, gainera kendu ezin duen fantasma. 2007ko apirilaren 29an, bozen aurreko diskurtso batean Nicolas Sarkozy 68ko “espíritu, jarrera eta ideiak” alboratzearen alde egin zuen, “moralak, autoritatea, lana eta nazioa”-rekin berriz politika egiten hasteko.

Hainbesteko kaltea egin al zuten ba lau ikasle zorok? Ala hilabetez Paris eta Frantziako Estatua geldiarazi eta mundu osoa eurei begira jarri zutenak hogeitaka urteko utopiko batzuk baino gehiago ziren? Urte nahasi samarra izan zelako izango da akaso; seguruago, gertakariak boterearentzat arriskutsua zen aurrekaria ekarri zutelako. Atzera begira jarrita gutxi aipatzen da udaberriko errebolta izan zuen indar politikoa. Belaunaldien arteko talkaz hitz egiten dute telebistako dokumentalek, “debekatua dago debekatzea” bezalako esloganak erakusten dituzte. Gutxi –ia ezer ez– fabrikak hartu zituzten langileez, alderdi politikoak eta sindi-

Langileak ez ditu inork aipatzen.

Eurak izan ziren herrialdea geldiarazi zutenak, ez zen kalea hartzeko adina jende egongo

ikasleak bakarrik matxinatu izan balira

katuak buruz gain pasa zituzten asanbladez, Charles de Gaullek sua itzaltzeko sentitu zuen beharraz, hauteskundeak aurreratuz.

Nanterreko sua nola zabaldu zen

Historia kontatu nahi duenak artaziak erabili behar ditu ezinbestean. Zail dago ordea ebakia non egin asmatzen, orain dela lau hamarkadako matxinadaren hasiera aurkitzeko. Lehenengo guraizearen ahoa 1964an sartuko dugu, urrian. Orduan zabaldu zuten unibertsitateko fakultatea Nanterren (Frantzia). Hirigunetik kanpo, txabola-auzoa zuen inguruan, zerikusi gutxi aberaskumeen unibertsitate performatuekin.

Ezkerreko talde ugari aritu ziren lanean hasieratik, baina lau nagusitu ziren 1967ko ikasturte hasierarako: LEA (anarkistak), JCR (trotskistak), UJCml (maoistak) eta CLER (trotskistak hauek ere, baina Pierre Boussel-en ildo-koak). Dena dela, korronteen gainera ikasleen artean sortu zen klimak izan zuen garrantzia Nanterren. Gaizki komunikatuta, garraibide egokirik gabe, unibertsitate-hirian bizi ziren ikasleen artean harreman bereziak sortu ziren, ohiko antolamendu politikoen gainera pasa zirenak. Martxoaren 22ko mugimendua da horren adierazle.

Jean-Pierre Duteuil-ek mugimendu horren sorreran parte hartu zuen; gerora zalaparta handia sortu zuen ikasle taldeak 142 gazte baino ez zituen bildu martxoaren 22an, unibertsitateko eraikin administratiboa okupatu zutenean. Duteuilek duela hogeitaka urte plazaratu zuen *Nanterre 65-66-67-68. Vers le mouvement du 22 mars* (Editions Acratie) liburuan kontatu zituen mugimenduaren hastapenak –bide batez, manual interesgarria da ikasle mugimenduaren bazterrik ongi nahasten ikasi nahi duen edonorentzat–.

Baliabide gutxiarekin egindako afixak sortu ziren protestarako. Egile ezezagunekoak, langile, ikasle eta irakasleen ekarpena izan ziren. Arte Ederretako fakultateko atelierrak bakarrik kontuan izanda, 500.000 karteletik gora egin zituzten.



Berrogeigarren urteurrenarekin batera, laster aterako du labetik *Mai 68, Un mouvement politique* liburua.

La Bussière-ko (Frantzia) bere etxean eseri, liburu berriaz galdetu eta bere eduki nagusia laburbildu du: hedabideek eta intelektual frantsesek erabat distortsionatu dute 68ko mugimenduak izan zuen izaera. “Tkuspuntu kulturala ematen dute huts-hutsean. Eta aspektu horretatik atera egin dute urte hartatik aurrera gertatu zena: emakumeen borroka, antisorgailuen aldekoa, irakaskuntza... Horiek borroka sozialaren testuinguru orokorretik atera dituzte. Horrek eragin du orain esan ahal izatea 68koa egin zuten gazteak exekutibo bihurtu direla”. Etxe xume bateko sukaldean eserita, liburuz inguratuta, ziurtatu dezakegu Duteuil ez dela topiko horretan kabitzen.

Hizketan jarraitu du, eta aipatu dituen maiatzeko zenbakiak ez dira ohiko bertsioarekin egokitzen: zortzi milioi grebalari. Nondik atera ziren? Duela berrogei urteko gertakarien memorieta hutsune nabarmena dagoela uste du Duteuilek; langileak ez dituela inork aipatzen. Eurak izan ziren herrialdea geldiarazi zutenak, ez zen kalea hartzeko adina jende egongo ikasleak bakarrik matxinatu izan balira. Eta hala ere belaunaldien arteko talka izan zela azpimarratzen da etengabe. “Freudismoa da, AEBetatik pasea, sinplifikatu eta xehetua: noski, izan zen gazteen errebolta egitura errepresiboen kontra, baina 68 aurreko egitura horiek ez ziren horrelakoak gurasoen erruz”. Mobilizazioetan ikasleak gutxiengoak ziren Duteuilen esanetan.

Foku handiak Nanterreko gelak argitu zituen aurrea eta Parisko kaleak ondoren. Baina aurretik ere izan zen zer kontatua. Duteuilek ez du uste beraiek ezer hasi zutenik, Frantzian 66an eta 67an ere langileek istiluak eragin baitzituz-



Asanbladak, manifestazioak, afixak eta istiluak. 68ko maiatzaren ohiko irudi bihurtu dira. Espontaneotasun handiz lehertu zen arren, lehenagotik ari zen egoera berotzen, Frantzian eta mundu osoan.

1968ko maiatzaren Parisen

ten; grebak izan ziren fabrika handietan, manifestazioak... Martxoaren 22ko mugimendua sortzeak eztanda eragin zuen, gazte asko politizatu zituen, pentsarazi egin zien, martxan jarri. Baina dena Nanterren hasi zela esatea anekdota txikiari erreparatzea izango litzaiteke bere aburuz. Testuingurua ez da behin ere ahaztu behar.

Gerraren ondorioekin hazi zen belaunaldia

Patxi Apalategik bere Donostiako etxean kontatu digu nola iritsi zen Parisera 1967an. Bost urtez bizi izan zen han, soziologia eta filosofia ikasten. Frantziako hiriburuan ordurako baziren euskaldun errefuxiatuak. Zer zen hura. Garai hartan Parisko harrien gainean ibiltzea Mendebaldeko gorpilaren ardatzean egotea zen. Orduan eta han gertatutakoa ez da kasualitatea Apalategiren ustez, globalizazio aurreko munduan Frantziak zuen garrantzia ikusita. 68ko maiatzaren abiapuntuaren bila bigarren aldiz ebakiko dugu historia guraizez, oraingoan 1945ean, II. Mundu Gerraren amaieran alegia. Gerra hark eragin nabarmena izan zuen, baita bizi izan ez zuen belaunaldiarengan ere.

Parisko maiatzaren gizarte zibilaren errebolta izan zela uste dutenetakoa da Apalategi. “Ez zeukan iraultza izateko aukerarik, baina lortu zuen gizartearen aldaketa sakona egitea”. Unibertsitateko ikasleak 1940-50eko hamarkadetan jaioak zirela azpimarratu du, gerraren gordina ezagutu gabeak; baina mundua oraindik bonba, herio eta miseriaren arrastoa gainetik kendu gabe zegoen. Boterearen erreferentziak militarrek ziren oraindik, gerra galdu zuten herrialdeak (Alemania, Japonia) hazkunde betean, Erresuma Batua neokolonialismoarekin entseatzeko Commonwealth-arekin, AEBak indar nagusi bihurtuta...

Eta Frantzian? Aljeriako konponduta, Vietnamdik irten-



GORKA BEREZIARTUA

Jean-Pierre Duteuil

“68ko ikuspuntu kulturala ematen dute huts-hutsean. Eta aspektu horretatik atera egin dute urte hartatik aurrera gertatu zena: emakumeen borroka, antisorgailuen aldekoa, irakaskuntza... Horiek borroka sozialaren testuinguru orokorretik atera dituzte”.



MADDI SOROA

Patxi Apalategi

“Euskal Herriak kapital politiko handia zeukan orduan munduaren aurrean, gero ikusi zen Burgosko epaiketarekin: Parisen izan nintzen manifestazioan ehunka mila pertsona zegoen. Baina Franco hil eta demokrazia formala azaldu zenean alderdi politiko abertzaleek ez zuten jakin kapital hori kudeatzen”.



LANDER ARBELAITZ

Mikel Urkola

“Parisen estudiante asko zegoen 18-20 urterekin etxetik alde egiten zuena. Posible zen hiru bat ordu lan eginez, errestaurante batean platerak garbituz-edo, bakoitzak bere bizimodua egin ahal izatea”.

da, hazkundera bazegoen, baina etekin gutxi iristen zen herritarrengana, Apalategiren ustez. “Protesta bere egunerokoarekin lotzen hasi zen jendea, eta noski, langileria eta negozioaren etekinetatik parterik jasotzen ez zuen gizartearen gehiengoak bat egin zuen”. Erreferentzia militarrek goitik behera botatzea eragin zuen 68ko maiatzak, bai Mendebaldeko herrialdeetan, baita Ekialdekoetan ere.

Francoren diktadurapeko Hegoaldetik Parisera joandako gaztea izaki, protesta giroak kontraesanen bat ere sortu zion Apalategiri. Manifestazioetan De Gaullengatik *‘dix ans, ça suffit’* nola esaten zuten gogoan du. “Gu hori garrasika, hemen Francok 30 urte zeramatzan-nean!”. Protesta olatua aparretan zen Euskal Herrian ere: Txabi Etxebarrietaren heriotza eta ETAren lehen atentatuak, Aberri Eguna setio egoeran... Orduz geroztik garai hartako gazteen lanketa intelektuala faltan botatzen du. “Euskal Herriak kapital politiko handia zeukan orduan munduaren aurrean, gero ikusi zen Burgosko epaiketarekin: Parisen izan nintzen manifestazioan ehunka mila pertsona zegoen. Baina Franco hil eta demokrazia formala azaldu zenean alderdi politiko abertzaleek ez zuten jakin kapital hori kudeatzen. Eta orduan hasi zen ezkerria pentsamendua pixka bat debekatzen, eta eskuina eskalatzeke antsia handiegia-ekin, salbuespenak salbuespen, noski”.

Denak galtzen du kolorea, hemen bezala han. Parisko maiatza sindikatu eta gobernuaren arteko negoziazioarekin eta Grenelle-ko akordioekin itzaltzen hasi zen. Errendizioa? Patxi Apalategik “etsipena” izan zela uste du. “Ez zerbait galdu zelako... ‘Aspertu gaituk, nahikoa diagu’ esan zuten langileek. ‘Hori al da? Ez gaudek konforme baina egunerokoarekin segitu beharra zegok?’. Jendea lanean hasi zen eta estudiantek oporretan etorri ginen. Irailerako bukatua zen”.

Bigarren industrializazioaren hondarrak

Bistakoa da testuinguruak garrantzi handia izan zuela 68ko maiatzeko gertakarietan, ezer ez zela hutsetik sortu. Baina galdera bat airean geratzen da berrogei urte beranduago: aro berri baten hasiera izan al zen, ala aro zahar-aren azken hatsa? Bigarrenaren alde lerratu da Mikel Urkola. 1966an arribatu zen Parisen filosofia ikasteko; ustekabean harrapatu zuen sortu zen nahasmenak.

Donostiako Lorea auzoko bere etxean izan-dako solasaldian Urkolak bi testuinguru eman dizkio 68ko maiatzari. Batetik, 60ko hamarkada mugimendu sozialentzat gogoangarria izan zela nabarmendu du, protesta giroa mundu guztira zabaldu zelako; baina bestetik, testuinguru historiko zabalagoa izan zuela uste du: bigarren industrializazioaren amaierarekin batera etorri zen eta faktore hori kontuan hartzekoa da. “Europar 1973an jarri ohi dute aro

horren amaiera, baina soziologo batzuek esaten dute Ipar Amerikan 68rako bukatzen hasia zela". Garrantzitsua da industriaren garapenaren epe horrek ekarritako ezaugarriak ongi ulertu eta lehen industrializaziotik bereiztea. Urkolak aldaketa teknikoak aintzat hartuta ere, aro horrek ekarritako aldaketa sozialak nabarmenagoak izan zirela uste du. Lehen industrializazioan boteredunen klasea gizartearen %1ak osatua zen eta baliabideen erdia zegoen euren esku. 1870etik aurrera ia ehun urtean luzatuko zen bigarren industri iraultzak aldatu egin zuen hori. Asegurantzia soziala, hezkuntza orokortua... aro berriaren adierazgarriak dira Urkolaren esanetan. "Borobil esateko ehun urtean, 1870etik 1970era, demokrazia gehitzen joango da: eskubide sozialak, demokratikoak, sindikatuen indarra, alderdi demokratiko samarrak, feminismoa..."

Aro horretako azken urteekin batera jazo ziren 68ko gertaera gehienak. Institutuzio demokratikoagoak nahi zituztela esplikatzen du, progresoa sinesten zutelako. Eskubide sozialen gailurrean zeudela, baina berdintasun osoa ez zegoenez, gehiago galdegiten zutela. Konparazio bat, gauzak nola aldatu diren ikusteko: "Denok etxejabe egin ginen, gaur ezin duzue! Parisen estudiante asko zegoen 18-20 urterekin etxetik alde egiten zuena. Posible zen hiru bat ordu lan egin, errestaurante batean platerak

garbituz-edo, bakoitzak bere bizimodua egin ahal izatea". Sabaia jo ondoren hasi zen gainbehera. Emaizta ezaguna izan du, hurrengo belaualdiek bizi izan dute.

Erantzuna baino, galdera dabil haizean: zer geratu zaigu duela berrogei urteko mugimendu hartatik? Hausterreak eta belaunaldi baten memoria baino ez, askoren ustez; antolakuntza politikorako eredu berriak eta botereak ikasitako lezioa, beste batzuentzat. Gizartearen mobilizazioaren gailurra izan zen, inflexio puntu bat. Geroztik emakumeek eskubide gehiago eskuratu dituzte, askatasun sexualak aurrera egin du; langileen soldatak eta lan baldintzak ez dira hobeak; unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura hautsi egin da. Eta AEBek herrialdeak inbaditzen jarraitzen dute. Testuinguru ez da bera, ordea. Erreportaje hau osatzeko elkarrizketatutako hiru pertsonen ikuspuntu diferentek azaldu dituzten arren, bat etorri dira erantzun batean: gaur egun horrelako zerbait errepikatzea ezinezkoa da. Parisko galtzadetako harriak ondo lotu dituzte lurrera, inork jaurti ez ditzan. Gai nontzekoa zigarro baten kea da galernaren erdian. Garaia izango da arrazoia, ideiak gastatu dira, ilusioa desegin. Maiatz hura ez zen kasualitatea izan, datozenak ere ez dira izango. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria>
helbidean, 68ko maiatzari buruzko bideoa.

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Taloiez
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-**

Aukeratu ongietorri oparia



"Kirolaz badakit"
mahai-jolasa



"888 txiste"
liburua



"Txoriak txori"
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

